

aikor!



txorierriko aldizkaria



Gorantzaileak Dantza Taldea,
40 urte
plazaz plaza

IKASTURTE BARRIA PRESTATZEN



Bertoko Zamudio

Lehen maila
60.15.04.10
80.15.04.08

Partekatu!
Dokumentuak
Arikak
Bideoak
Irudiak
Triskoiak

Eskolak urtean hasiko dira

ANIMA ZAITEZ





E.class
Zamudio

Ingeles Klase partikularrak

944520331

TXORIERRIKO ETORBIDEA, 14



IKAS!
IKASTEGIA

- Enbortzatze eta enbikaperazio eskolak
- Ingeles eskolak
- Mende garapena
- Dirulaguntzak zama-dokumenentzat

Orain hasi, 10 lekuak. Zama-dok. 1500000-1500000 / 1500000-1500000

ZAMUDIOKO KAMARA KORALA



ANPOTIA gogoratu! **Zamudio**?

BIDAIATZEAK?

LAGAZIN BHIOTIAK egun nahi dituzu?

Zuretzat **MOMENTU** **AHAZTEZINA** izan nahi dituzu?

ONDOU **PASATU** nahi duzu?

ORDUAN..... ZATOZ GUREKIN!

EZ ZARA **ZAMUDIO** **IKU**

Hobaria:

10 / 10 **1000000** **1000000** **1000000**

1000000

1000000 **1000000** **1000000** **1000000**

1000000 **1000000** **1000000** **1000000**

Slow



INES SERRANO
(Irakaslea)

Uda partea ona izaten omen da irakurketa lasaiari ekiteko, eta neure aldetik esan behar dut horretan, behintzat, probetxuzkoak izan ditudala opor-
rak. Irakurri ditudan liburuen artean bat aipatu gura nuke, erakarri egin naudelako oso: *Elogio de la lentitud*, Carl Honoré kanadar kazetari batek idatzia. Bertan *slow* mugimenduari buruzko hainbat aipamen eta goraipamen egiten dizkigu.

Eta zertan datza mugimendu hau? Hasiera batean Carlo Petrini italiarrak *fast food* fenomenoaren kontrako jarrera adierazteko sortu zuen, otorduak prestatu eta egiteko behar den denbora eta erritmoa aldarrikatuz. Harrezkero munduan zehar hedatu den filosofia bilakatu da, baina ez soilik janariari dagokionez; ingurugiroa, osasuna, hezkuntza... ere aintzat hartzen ditu.

Kontua ez da *slow*, hau da, "astiro" ibiltzea aldarrikatzea, baizik eta gure bizimoduari eta inguruneari erreparatuz behar den denbora hartzea, guretzat zein ondorengentzat nolako oraina eta etorkizuna nahi dugun erabakitzeke: berreskuratu behar omen dugu lagunarteko berriketaldi lasaia egiteko denbora; gure buruari galdetu ea lan egiten dugun bizitzeko edo bizi garen lan egiteko; nolako herri edo hirietan bizi nahi dugun; zer nahi diegun irakatsi geure umeei, eta nola; gure gaixotasunei zelan aurre egin... Hitz batean, gure bizitza geure esku egotea, baita hau ondo bideratzeko baliabideak ere.

Hau ez da, ez, gauza berria. Egunez egun irensten gaituen globalizazio erraldoi honek ez digu inolako erraztasunik uzten gure "patua"ren jabe izateko, eta gero eta tresna

gutxiago dugu gizartean eragiteko, kontra-
koa dirudien arren. Egoera hau eraldatu guran dauden hainbat talderen ondoan aurki daitezke barraskiloa ikurtzat duten *slow* mugimenduaren defendatzaileak.

Eta nago gurea bezalako herri txikietan, oraindik dirauten ohitura onak eta dagoen hurbiltasuna aprobetxatuz, pentsaera honen ildotik aurrerapausoak ematea errazagoa izan behar dela. Izan ere, egun hain modan dagoen sostengarritasuna bide ezin hobea litzateke liburu honetan iragarri nahi diren asmoak betetzeko, antzeko helburuak proposatzen baititu: besteak beste, bertako erre-
kurtsoak erabili eta bultzatzea, hirigintza egokia bideratzea, gizartearen lana baliatzea eta elkarren artean benetakoa den herri

eredu iraunkorra eraikitzea.

Bai, hemen eta han entzuten ditugu hitz famatu horren kontura mila mezu, aldaketa klimatikoa dela, mugikortasuna dela, kutsadura dela... Baina gauza beraz ari ote gara denok "iraunkortasuna" hitza erabiltzen dugunean?

"Mugimendu horrek gure bizitza geure esku egotea aldarrikatzen du, baita hau ondo bideratzeko baliabideak ere"

AEKren historian

A EK Egunean, Larrabetzuko uri dinamikoan, eguzki begitan ginela, adiskidea urreratu zitzaidan, esanik: "Hamen Goiko bere, AEKren prehistoria!"

Gero, autoak ninderamala, ospakizunari beroarena kentzerakoan, pentsatu nuen: Zer da "AEKren prehistoria?" Zergatik ez historia? Ezen 1971n bagenbiltzan gu Alfabetatze Kanpainetan.

Pasadizo horren harira, Institutu Txorierrikoan irakasle zen Australiako neskatilari itaundu nion, ea noiz has-
ten den Australiako historia. "Ba, ingelesak bertara heldu zirenean!". Hara!, eta arterik bizi ziren aborigenak? "Indigenak prehistoria dira".

Aiko adibide polita! AEKren historian indigena australiarren parekoa.

Hori horrela, asmo hartu nuen aipamen llaburra idaztea Imanol Berriatuaren 25. urteurrenean.

Aita Imanol, gutariko askori idazten irakatsia da; Bermeoko arrantzalea-
kaz "Oestafrika"n jardunik euskara



JUAN LUIS GOIKOETXEA
(Irakaslea eta euskaltzain urgazlea)

bizia Anaitasunan goratua; Oinarrizko Euskara gauzatua; Xabier Kintanarekin "euskaltegi" berba sortua; Gabriel Aresti lagun min duela euskara batua aditzean-eta eraikia; Euskaltzaindikoa; zazpi hizkuntzatan jantzia; idazlea.

Halaxe ditut neure usteak letretara ekarri, gerta ez dadin, historiatik prehistoriara bidalirik, hain kutun genuen Imanol Berriatua ere ahaztu egitea, beti ere, **AIKOR** baikor harturik.



Lauroeta jaietan

Irailaren 29tik urriaren 1era bitartean, San Migel jaiak izango dira Lauroetan be bai. Hauxe dozu bertako jai-batzordeko-ak prestatutako jai-egitaraua.

Irailaren 29a, barikua

11:00: Kalejira



12:00: Mezea

12:45: Briska txapelketa eta Urganixora jaurtiketa

19:00: Sokatira goma gaineen: Goierri, Gatika, Abadiño eta Audio

20:30: Bertso saioa: Xabi Paia, Etxahun Lekue, Amets Arzallus eta Sustrai Kolina

22:00: Erromeria

Irailaren 30a, zapatua

09:00: Lauroetako II. Mendi Ibilaldia

18:00: Tiragoma jaurtiketea

19:30: Umeentzako jokoak

20:00: Elorrio orkestra

21:15: Saiheski eta txistorra-jana

22:30: Elorrio orkestra

Urriaren 1a, domeka

Egun osoan umeentzako puzgarriak

10:30: Kalejirea

11:00: Mezea

12:00: Artzain-txakurren XXII. Erakuske-
tea

13:30: Adiskidea fanfarrea

18:00: Dantzen agerraldia, Loiuko dantza
taldeagaz

19:00: Idi-probak

21:00: Ahuntza zozketatzea

22:00: Erromeria

MARMOLGINTZA

GOYO

RETRATU, GAITURKIAK
UNBUK ETA TILERAKIAK

Elizategarekin 1. maila, 18. Kantoia
40101 BILBO (B) (Barrioak)
Telefono: 94-424 02 50 - Fax: 94-424 30 63

LIENAR URTUONDO
ALABARRA

Maria Urtundo Lienar
Albisteak: 94-424 02 50
eta 94-424 30 63 (fax)

DERIO LAURUEN 24 orduak
24 orduko erromeria urriaren 29tik

MARMOLERIA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA

Sakalde eta bainageletako harriak
fotuxia, urbariak eta hilerriak

Tamara Aguirre 1. maila, P. 18 - kate 2
40170 ZAMUDIO (B) (Barrioak)
Tel/Fax: 94 424 01 41 - 3

ACUPUNTURA
Bilboko 1. maila
Txakurren txakurren
DOKTO

ACUPUNTURA
Bilboko 1. maila
Txakurren txakurren
DOKTO

ALBERTO
Lauruaren 24 orduak
24 orduko erromeria urriaren 29tik

AMAIURU
ARETXETA
Bilboko 1. maila
Txakurren txakurren
DOKTO

EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK

Artea 119
Telefono: 94 432 11 58
ZAMUDIO

GAMINIZ
RESTAURANTE

ALBERTO
Lauruaren 24 orduak
24 orduko erromeria urriaren 29tik

SANTI MAMI
Bilboko 1. maila
Txakurren txakurren
DOKTO

Etxebarria, Sopelako lasterketa nudistaren irabazlea



Jone Etxebarria Larrabetzuko atletak Sopelako lasterketa nudista irabazi du emakumezkoen kategorian. Aurtengoa txapelketa irabazten duen hirugarren aldia izan da, eta marka hau lortu du: 21 minutu eta 3 segundo. "Pozik nago, baina irabaztea ez da izan helburua, ondorioa baizik. Halako lasterketetan parte hartzen dut, errebindikazio-kutsua dutelako, eta horrekin bat egingen dudalako". Lasterketa Barinatxe hondartzan izan zen irailaren 9an, eta bertan

135 korrikalarik parte hartu zuten. "Atletak ez ezik, entrenatzen ez direnak ere bai. Eta hori oso polita da, jai-giroa sortzen delako. Era naturalean egin genuen korrika eta horrek gaur egun daukagun ereduak apurtzen eta aurreiritziak albo batera uzten laguntzen dizu". Beste alde batetik, larrabetzuarrak lasterketaren gogortasuna ere aipatu du. "Izan ere, biluzik eta harean gainean korrika egiteko ohiturik ez dut, eta asfaltoan baino gogorragoa da".

Aldi baterako egonaldiko egoitza ireki da Sondikan

Bizkaiko Foru Aldundiak egoitza bat ireki du Sondikan, Ola auzoan. Egoitza horretan aldi baterako egonaldiak egingo dituzte adimen ezintasunen bat duten pertsonak. Egoitza irekitzeko, Aldundia lankidetzan aritu da BBKrekin eta Gorabide elkartearekin; egoitza, hain zuzen ere, BBKren jabetzako eraikin batean ezarri da. Zentro horrekin beste helburu bat ere lortu nahi da: pertsona ezinduak zaintzen dituztenek toki bat izatea atseden hartzeko. Egoitzaren kudeaketaz Gorabide elkartea arduratuko da.

Instalazioetan 20 lagunentzako tokia dago, baina aurrerago kopuru hori gehitu eta 28 lagunentzat prestatuko dute. Egonaldiak hamabost egunetik hiru hilabete artekoak izango dira. Kasu berezietan lau hilabetekoak izan daitezke.

Garai txapelduna, Laukizeko Igoeran

Irailaren 10ean Laukizeko Igoeraren bigarren edizioa izan zen eta Zamudio Motor taldeko Ibon Garaik parte hartu zuen bertan. Gazteak Clio Sport bat gidatu zuen eta txapelduna izan zen bere kategorian: 3 Klasea A Taldea. Saillapen orokorrean 12. postua lortu zuen.

URIBE KOLORE
URIBE KOLORE, URIBE KOLORE
URIBE KOLORE, URIBE KOLORE

uribe koloreko
uribela

Urbe Koloreko Uribela
Urbe Koloreko Uribela
Urbe Koloreko Uribela

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pediatra eta, 1-17 A
DENT

100-100-100-100-100

Garai

URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA
URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA
URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA

URIBELA

Urbe Koloreko Uribela

Urbe Koloreko Uribela
Urbe Koloreko Uribela
Urbe Koloreko Uribela

ZAMUDIO MOTOR

Garai

100-100-100-100-100

Garai

Garai

URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA
URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA
URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA

BAR TXIKI

Urbe Koloreko Uribela

Urbe Koloreko Uribela
Urbe Koloreko Uribela
Urbe Koloreko Uribela

BAR BIDE-BI

Garai

100-100-100-100-100

BIDE-GORRI

Garai

URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA
URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA
URIBELA, URIBELA, URIBELA, URIBELA

Gidatze ekonomikoaren gaineko ikastaroa, Derion

Irailaren 16tik 22ra bitartean, Europako Mugikortasunaren Astea izan da eta aste horretako ekitaldien barruan, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) gidatze ekonomikoari buruzko ikastaroa antolatu du Bizkaiko 5 udalerrietan: Bilbon, Mungian, Derion, Laudion eta Arrasaten. Ikastaroak hurrengo helburu hau izan du: ikasleek erregaien kontsumoa zein CO₂ gas-isurketa %15 gutxitzen ikastea.

Ikastaroa lau ordukoa izan da eta hiru

atal eduki ditu. Lehenengo eta behin, ikasle bakoitzak ibilbide bat egin du kotxez eta bere gidatzeko era aztertu dute, baita abiadura eta kontsumoa ere bai. Ondoren, gidatze eraginkorrari buruzko klase teorikoak jaso dituzte eta ibilbidea berriro egin dute. Azkenean, ibilbideen kontsumoak eta abiadura konparatu dituzte. Ikastaroan Derioko 30 bat lagunek parte hartu dute eta horietako 11ren emaitzak aztertu ondoren, urtean 310 km-ko aurrezpena izan dute, batzaz beste.



San Migel 2006

Derioko San Migel jaiei hasiera eman zieten irailaren 22an eta asteburuan zehar hainbat ekitaldi izan ziren: mozorro eta gastronomia lehiaketak, berbenak, traka, sokamuturra... Hala ere, jaiak ez dira oraindik amaitu eta irailaren 29tik urriaren 1era bitartean giro onaz gozatzeko jarraitu ahal izango dugu herrian.

Irailak 29, barikua

19:30: Txorizoa sagardoarekin

21:00: Karaokea

00:00: Berbena, Iratxo taldearen eskutik

04:00: Diskoteka

Irailak 30, zapatua

10:30: "Julio Garitano" IV. Futbito Txapelketa

12:00: Herri poteoa

14:00: Indaba-jana

15:00: Postre sorpresa

16:30: Konpartsentzako zezenketa-lehiaketa

00:00: Berbena, Denis Band orkestrarekin

04:00: Diskoteka

Urriak 1, domeka

10:30: "Julio Garitano" IV. Futbito Txapelketa

12:30: Tapak, plazan

17:00: Dantzen agerraldia, Laiomendi taldearen eskutik

20:00: Txokolatada

20:15: Konpartsen eta argazki lehiaketaren sari banaketa

20:30: Diskoteka

23:00: Txupina eta jaien amaiera



TALLERES JUAN ANDRÉS
REPARACIONES, PINTURAS, ELECTRICIDAD, FORTALECIMIENTO DE PUERTAS, JANTES

Carretera de Leizor, 10 - 48100 Leizor (Bizkaia)
Tel: 94 400 10 10

LEANDRO LANDETA



PARAGITOGIA-ORDAINTZOGIA
Gut. Euzk. 1 - Tel. 94 400 10 10 - 48100 LEIZOR (BI)

ESTUDIO DE SONIDO Y VIDEO

ZAMUDIO

Reparación y mantenimiento de equipos de audio y video

Web: zamudio.com
Teléfono: 94 400 10 10 - 48100 LEIZOR (BI)

GUEKIAN
VITICULTURA DEPORTIVA, S.L.

Desarrollo de proyectos de viticultura deportiva

Urbanización de Viñedos, 10 - 48100 Leizor (Bizkaia)
Tel: 94 400 10 10

ZAMUDIOKIDAKO ESTANKEA

Tobakoa, librea eta oporlek



Tel: 94 400 10 10 - 48100 LEIZOR (BI)

OBRAS Y REFORMAS
CONSTRUCCIÓN Y REFORMAS

Garrotxa

Trabajos de construcción y reformas

Urbanización de Viñedos, 10 - 48100 Leizor (Bizkaia)
Tel: 94 400 10 10

J. ELORRIAGA
Pinturas, barnices, productos de limpieza

Urbanización de Viñedos, 10 - 48100 Leizor (Bizkaia)
Tel: 94 400 10 10

GARRAIO-LARIA



Miguel Ángel Ibarra

ANDAMAR 19
I. ARRATZU
Tel: 94 400 10 10

GAITELEKI TALLER



GAITELEKI

Urbanización de Viñedos, 10 - 48100 Leizor (Bizkaia)
Tel: 94 400 10 10

Ongi etorria eman diote Meñikari Zamudion

Irailaren 14an, gauez, Txorierriko ehun lagun baino gehiago bildu ziren Zamudion, Ibon Meñikari ongi etorria emateko. Santiago Pedraz Audientzia Nazionaleko epaileak aske utzi zuen gaztea 12.000 euroko fidantza ordaindu ostean. Guardia Zibilak apirilean atxilotu zuen Meñika, ETari diruz laguntzeko bonoak zeramatzan akusaziopean.

Beste alde batetik, abuztuaren 5ean, jendetza handia batu zen Lezamako plazan, Iñaki Rike Galarzari azken agurra emateko. Lezamarra uztailaren 27an hil zen Baionako ospitalean, gaixotasun larri batek jota. Espainiako kartzeletan 18 urte eman ondoren, Rikek duela 6 urte eta erdi lortu zuen askatasuna; hala ere, Lapurdia

alde egin behar izan zuen orain dela urte eta erdi.



Sondikako Udalak eta Behar Bidasoak dirulaguntza eman dio Kolonbiako erizaindegi bati

Pereira hirian (Kolonbia) dagoen Emakumeentzako Herrera eta Heziketa Zentroa da Behar Bidasoak gobernuz kanpoko erakundearen lanaren xede nagusia. Zentro hori Las Brisas eta El Danubio auzoen artean kokatua dago. Auzo biok oso pobreak dira. Kolonbian, gainera, ez dago osasun zerbitzu publikorik eta, ondorioz, auzotako gehienek ez dute erarik izaten medikuarenera joateko, ez baitute eskuarterik izaten.

Sondikako Udalak eta Behar Bidasoak

arazo horri heldu diote aurten, eta erizaindegi egoki bat atondu dute emakumeentzako zentroan. Astean ordu batzuez ibiltzen dira borondatezko medikuak gaixoak aztertzen. Zerbitzu hauek ematen dituzte: ginekologia eta familia plangintza, elikadura eta bizkarroiak parasitoak hiltzea, okulista, dentista eta akupuntura. Proiektuan 2.000 euro inbertitu dira; kopuru horretatik 641 euro jarri ditu Sondikako Udalak, eta gainerakoa Behar Bidasoak.

Eraikin berria Derioko haur-eskolarako

Derioko haur-eskolako eraikin berria herriko eskolan bertan dago eta 21 umeentzako tokia du. Eraikinak 150 metro koadro ditu eta ikasgela bi atondu dira bertan: bata urte batetik beheko umei zuzenduta eta bestea urtea bete dutenei zuzenduta. Logela bi, komuna, aldagelak, sukaldea eta bulegoa ere badaude. Horrezaz gainera, psikomotritate-gela bi egin dituzte eraikinean: bata haur-eskolako umeek erabiliko dute eta bestea eskolakoek.

Urte batetik beheko umeentzako ikasgelan 6 haurrek eman dute izena aurten eta toki bi daude libre; beste ikasgelak 13 plaza ditu eta horietatik 8 betetzeke daude.

AEK-k Gaztañaga omendu du

Txorierriko AEK Txepetxa euskaltegiak Sabin Gaztañagari omenaldia egin zion irailaren 23an, kurtso berriari hasiera emateko. Gaztañaga Txepetxa euskaltegiaren sortzaileetarikoa bat izan zen 1985. urtean. Omenaldian lore eskaintza eta bertso emenaldia egin ziren eta, horien ostean, luntx bat izan zuten AEK-ko kideek. Bertan kurtso berriaren planei buruz hitz egin zuten, Korrika haien artean. Euskararen aldeko jaialdiak 15. edizioa bateko du datorren urtean.

Derioko Berbalagun, martxan berriro

Berbalagun proiektua iaz jarri zuten martxan Derion eta izandako arrakasta ikusita, aurten ere antolatzea erabaki da. Euskara erabili eta praktikatu nahi duenak zein behar horietan laguntzeko prest dagoenak Tximintx euskara elkartera jo dezake: Derioko KZgunea (17:00etatik 19:00etara), tf.: 635753595, e-mail: tximintx@euskalerria.org. Udal euskaltegian (944540062) eta AEKn (944543967) ere eman daiteke izena.

ARTIZAR
MARROKAK JANTZEN DUTU PIRIA

JOSU KORTA, J.
TEL: 94-488 81 40

AGUSTIN SUKURRI
Bilaka

ATARRABI

Luzenbaita, 41 - 48100 Zamudio
Telefono: 944 541 945

Auxi

PEREIRA: LAURE BARRAL
Bilaka, 22
B. 6.30etatik 14.00etara
94454 10 40

DERIO: I. RIKO
"LAURENTE BARRAL" KANPUS
17.00etatik 19.00etara
94454 10 40

FONTANERIA DOBARAN

Remontaje - Instalación
• Bideberritzaileak
• Buzoiak
• Balmugelak

9194 453 3860
1668 76 6884

Milano, 4 - 48101 SONDICA

Sabina Askollizaga

Argazki, Argazkiak
Udako

409 47 57 46

TEL: 94 488 81 40
Bilaka 48100

Argazkiak, Argazkiak
Udako

Zamudio Jantzen

Premerari kalea, 22
Telefonoa: 94 488 81 40
94 488 81 40 (Bilaka)

www.zamudio.com

E-mail: info@zamudio.com

Txorierritarrak, Santa Engraziko pastoraLEAN



Aurtengo pastorala Santa Grazin antzeztu da garagarri-laren 23an eta 30ean, arrastiko lauretan. Guztira 77 antzezlek eta 130 laguntzailek parte hartu dabe Zuberoako herri honen patroia Santa Engraziren elezaharra kontatzeko: txorierritar talde bat horren lekuko.

Erdi Arotik datorren ohiturari jarraituz, aurtan be, Zuberoako herri batek bere bizkar gainean hartu dau pastorala prestatzeko lana eta ardurea, herritar guztiak antzerki herrikoi honen inguruan batuz.

Santa Engraziren bizia pastoralaren gai nagusitzat hartuz, Santa Grazi herriaren

kondaira be plazaratu dabe: "Soldadu erromatarrek, 300. urtearen bueltan, Santa Engrazi portugesa torturatu eta hil egin eben, bere kristau sinismena ez ebalako ukatu gura izan. Sainduaren gorputza, Zaragozan luzaroan egon ondoren, X. mendean edo, apaingarritz beterik eukan

bere beso bat lapurtu eben, legendak diñon moduan. Lapurrek, Zuberora heldu zirenean, haretx baten enbor barruan gorde eben beso hori, derrigortuta. Kontatzen da zezen bat adarrak sutan haretxaren aurrean belaunikatzen zala, eta arbola sustraituta egoan leku berean eraiki ebela XI. mendean Santa Graziko eliza erromanikoa". (Junes Casenave-Haragile Altzaiko erreto-re eta ikertzaileak idatzi dau Santa Engrazi Pastoral, Jean-Pierre Recalt errejentak zuzendu, Sophie Larrandaburuk koruak afinatu eta Jean Etchegoyhenek dantzariak koordinatu).

Lehen perediküa

<i>Agur, züer, jente honak,</i>	<i>Egün gük Santa Engrazi</i>
<i>hor jinik Santa Grazira.</i>	<i>aipatüko deizügü,</i>
<i>Arte goxo bat züeki</i>	<i>Heben haren trajeria</i>
<i>igaraiteko prest gira.</i>	<i>nahi beitiügü eskentü (...)</i>

Lehenengo emonaldia, garagarri-laren 23koa, eguraldi ederragaz, euskal giro ezin hobean eta 3000 bat lagunaren aurrean egin zan. Pastoral eta pastoralaren gerokoak be disfrutatzen, tabernako komentarioak egiten, koadrilen artean Zuberoako doinu zoragarriak kantatzen, afari herrikoia das-tatzen, etab., han be egon ziran txorierritar-rak.

Testua eta argazkia: Fernando Olabarrieta

SAN ISIDRO
ESKOTZAK, KOTZAK, BAI KOTZAK
 Konpainia (Landa kotoak) - Komunikazioa
 (Landa kotoak) - Komunikazioa

TEL
 T. 94 47 12 43
 T. 94 47 12 43

Bar TRIPPY
LIVE: CHORIK ONERA
 Bara kotoak (Landa kotoak) - Komunikazioa
 (Landa kotoak) - Komunikazioa

ARLAN
 Avanzada Empléica 7 48960 Erandio (Bizkaia) Tel 94 47 12 43
 www.arlan-serv.com / www.arlan.biz

Betagarri musika taldea

“Derrigorrean kantatu behar ditugu gizartearen arazoak”

Zuena Euskal Herriko talderik internazionalenetarikoa da.

Oso positiboa eta aberatsa da hori: batetik, mundua ezagutzen dugulako, eta bestetik, munduak gu ezagutzen gaituelako. Eta gurekin batera, gure herria, kultura eta hizkuntza. Zuzenean jotzea oso garrantzitsua da talde batentzat, eta Euskal Herriatik kanpo eta ahalik eta urrutien bada, askoz hobeto. Horrek ematen dizun musikarekiko eta zure herriarekiko perspektiba oso inportantea da, izan ere, Euskal Herria txikia izan arren, handia ere badela konturatzen zara, kanpora joateko eta nongoa zaren harro esateko aukera ematen dizulako.

Feeling itzela duzue publikoarekin...

Jendea garrantzitsuena da guretzat; gurekin disfrutatzea nahi dugu. Gure kontzertuetan ez da bertuosismo handirik ikusiko: gu ondo jotzen saiatzen gara, eta gainontzekoa publikoak berak jartzen du. Zuzena publiko eta musikarien arteko elkarriketa da, eta kimika sortzen da, publikoak gainean dagoelako.

Errebindikazio-guneak ere badira zuzen horiek ...

Musika salaketa-tresna inportantea izan da Historian. Azken batean, musikariok gizartearen zati bat gara eta bere arazoak derrigorrean kantatu eta sentitu behar ditugu. Eta publikoak ere horiek entzun nahi ditu.

Nola definituko zenituzke azken 14 urte hauek?

Izugarriak, izan ere, ez genuen inoiz pentsatu hainbeste urte emango genuenik musika munduan. Disko bakoitza gure bizitzaren atal bat izan da, eta ezberdinak ere bai, denbora pasatu den heinean guk ere heldutasun maila ezberdin bat izan dugulako... Taldeari esker aukera handiak izan ditut, bai kanpora atera eta hainbat jende ezagutzeko, bai Euskal Herriko hainbat belaunaldi ezagutu eta euren bizitzaren parte izateko.

Betagarri taldeak kontzertu zoragarria eskaini zigun Lezamako jaietan. Guk Iñaki abeslaria harrapatu eta berbetan ibili ginen berarekin.



Taldeak "Hamaika gara" azken lana azaroaren 7an aterako du

Metak diskoetxearen itxierak musikaren egoerari buruzko eztabaida berpiztu du...

Egoera ez da lehenagokoa, baina musika egiten jarraitzen da, behintzat. Top manta, Internet eta multinazionalak aparte eta talde euskaldunei dagokienez, tendentzia bat ikusten dut gaur egun: inoiz baino jende gehiagok ateratzen du diskoa, baina gehienak urte batetik bestera desagertzen dira panoramatik. Guk 4 urte eman genituen maketa eskuan genuela eta gogorra zen, baina gure musika zuzenean defendatzearen aldeko apustua egin genuen, eta

diskoa atera ziguten azkenean. Ibilbidea egin dugu... Musikariak euren musikan sinestu beharko lukete, disko bat ateratzearekin ez baita dena konpontzen.

Hori zuen diskoetxea zen...

Disko berria udaberrian ateratzeko asmoa genuen, eta diskoetxea ixteak planak aldatu zizkigun erabat. Azkenean, Oihukarekin aterako dugu azaroaren 7an, Durangoko Azokarako, hain zuzen ere. Lan berriak *Hamaika gara* du izena, izan ere, asko gara giza-eskubideak defendatzen ditugunak, sufritzen dugunak, beste mundu batean sinesten dugunak... Eta ez dizue huts egingo! Aurkezpen-birak Madrilera eramango gaitu, Zaragozara, Bartzelonara...

Testua: Ixaso Marina
Argazkia: Oihuka

NOVA INFANTIL

Trimeleta

Cartolina infantil II
Teléfono: 91 54 14 11
1987 - 1994 de 19

1994-1995
1996-1997

ZAINOZ

VERBALES ESCRITOS:
Comentarios:
- Jueves, miércoles y viernes
- 19h30h
- Por favor, traer el material
- 19h30h

Comentarios: por favor, traer el material
19h30h

**Juan Carlos Parra
López Iñigo**

1994-1995
1996-1997

LA VUELTA AL MUNDO

Cartolina infantil II
Teléfono: 91 54 14 11
1987 - 1994 de 19

1994-1995
1996-1997

**1994-1995
1996-1997**

**1994-1995
1996-1997**

Beñat Aiartza, etorkina Grezian

“Kanpokoek be mantendu behar dogu herriaren identitatea”



Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Beñat Aiartza

Zelakoa da zure bizimodua Grezian?

Atenaseko Exarjia auzoan bizi naz. Bertan gazte asko dagoz, etorkinak, mugimendu soziala eta kultura... nire saltsan nago. Gaztelania erakusten dot hizkuntza eskola baten eta klase partikularrak be emoten dodaz. Halaber, antzerki irakasle bati lagunduten deusatz musika arloan eta, horren truke, klaseak jasoten dodaz doan. Grekoa kalean ikasten nabil eta boluntarioa naz etorkinentzako zentro baten.

Zaila dabe gazteek bizitza ateratea? Eta zu etorkina izanda, ganera...

Etxebizitzari jagokonez, hemen dagozen arazo berberak topatuten dozuz. Zaila da zeure burua mantendutea, bizitza garestiagoa dalako eta gitxiago irabazten dalako. Lana beste kontua da. Lan baldintzak ez dira oso onak eta askok kontratu barik egiten dabe lan. Gobernuak be neurri asko hartuten ditu langileen aurka. Baldintzak txarrak badira bertakoentzat, askoz txarra goak etorkinentzat. Ni, behintzat, europarra naz eta paperak dodaz... Eta hasiera-hasieratik bertako hizkuntzan eta kultur

murgilduten bazara askoz errazagoa dozu.

Eta euskara eta euskal kultura zabaltzen zabilz...

Beno, dantza grekoez ganera, Euskal Herrikoak erakusten deusatz etorkinei. Europako Foro Soziala Atenasen izan da aurten eta euskaldun pilo bat batu gara bertan. Euskal dantza zein greko batzuk prestatu doguz etorkinakaz eta bertsoan ibili gara euskaldunakaz tabernetatik. Eurovision bertan be izan da eta etorkinok Eurovisioff festibal alternatiboa egin dogu, gure herrietako dantzak eta kantuak beste ei ezagututera emoteko. Beste alde batetik, hizkuntza eskola batetik deitu nabe, izan be, baleiteke euskera talde bat sortutea...

Gutziz bertakotuta zagoz...

Gutziz, ez dakit; nahiko, bai. Hurrengo hau pentsatu dot betidanik: edonora joan ezkerro, bertako biziteko zein komunikatuteko eran murgildu behar zara. Horreek mantendutea ezinbestekoa da eta ardurea dabe bai bertakoek, bai etorkinek. Nik, adibidez, ingelesez egin neike, baina gre-

Bizitza beste leku baten nolakoa izango zan jakin nahi eban eta Greziara abiatsu zan. Herriak liluratu eban eta kosta ahala kosta bertan gelditu beharko zala erabagi eban. Zamu-dioko Beñat Aiartzak zailtasunei aurre egin deutse eta bere lekua aurkitu dau heleniarren artean. Gazteak urtebetea daroa bertan.

koz egitea nahiago dot.

Zeintzuk dira bardintasun ala ezbardintasunik handienak grekoen eta euskaldunen artean?

Kultura minoikoa eta euskal mitologiaren artean badagoz parekotasunak. Adibidez, hareek be hiriari “hiria” esaten eutsien. Eta greziarrek be ahalegin handiak egiten dabez euren kultura mantenduteko. Dana dala, ezbardintasunak nabariagoak dira: eurek kalean egiten dabe bizitza, zabala goak dira...

Noiz itzuliko?

Familia, lagunak, herria... faltan botatuten dot hein baten, baina ez dot hemengoaz gehiegi pentsetan. Gaur egun Grezian bizi naz eta neure burua bertan dot. Esperientziak neure lehentasunak eta baloreak sendotuteko balio deust eta etorkinekiko solidaritatea be beste era baten bizi izaten dot. Azken baten ni be etorkina naz; hori bai, europarra eta pribilegio askogaz. Eta etorkizuna? Ez dakit, gaztea naz ondino. Bertan udara arte geldituteko asmoa dot; gero gerokoak.



dek ren eskutika



THORNTON AND
Gordon E. G. BIRD

Abstract

[Previous item](#)
[Tutorials](#)
[Next item](#)

- Ingellica mellea purdiana
- Eriolobus angustatus
- Eriolobus leprosus (Eriolobus leprosus) - a. leprosus (Eriolobus leprosus)
- Eriolobus leprosus (Eriolobus leprosus) - a. leprosus (Eriolobus leprosus)
- Eriolobus leprosus (Eriolobus leprosus) - a. leprosus (Eriolobus leprosus)

Revised: 12/11/2018
 12/11/2018 12:11:11 PM
 12/11/2018 12:11:11 PM

www.elsevier.com/locate/jmr
Journal of Macroeconomics


Daniel Ugarteles
 Boris Cordero
 Erika Alvarado
 Amalia Uribe
 Miriam Pacheco
 Miguel Salazar



Environ Biol Fish (2015) 98:1031–1040



Author's address: Department of Psychology, University of California, San Diego, 3542 La Jolla Village Drive, San Diego, CA 92093, USA.
E-mail: shawn.mcclelland@ucsd.edu



grupos de madres y padres.
aquí se les enseñaba a leer y a escribir, a cuidar sus hijos.

© 2000 Blackwell Science Ltd *Journal of Internal Medicine* 247: 395–402

Keniko plaza.3 40100 DERIO • Tlf: 94 454 00 02 • Fax: 94 454 27 38
auskaltia@txenarikibizkaia.org

Das gesamte Buch ist

24 April

Oguiza Doktorea hortz klinika. Seriotasuna eta profesionaltasuna



“Oguiza Doktorea hortz klinikak odontologia-espezialitate guztiak batzen ditu zentro bakar batean”

hortz-haginak oker haztea gurasoen kezkarik nagusienetarikoa da. “Arazo horiek zuzendu eta aurrezaintzen ahalegintzen gara. Gainera, gero eta gehiago dira hortz-haginen posizioa zuzentzera animatzen diren helduak”.

Beste alde batetik, inplanteek falta zaizkigun hortz-haginak ordeztzeko aukera paregabea eskaintzen digute gaur egun. “Baina batzuetan ezin dira inplanteak jarri, hezuraren berezitasunak direla-eta. Gure hortz klinikan hezurra sortu eta txertatzeko teknika modernoak ditugu, eta, horrela, inplante horiek jarri ahal izaten ditugu”, azaldu du Enrique Tripaldik. Odontologoak kirurgia arloa du ardura.

Estetika kezkatzen gaituen kontua da, eta hori gero eta nabariagoa da Odontologia mailan ere bai. “Hortz-haginak zuritzeko teknika lantzen dugu, eta, era berean, irribarreak birmoldatu eta gris kolorea duten hortz-haginak konpontzen ditugu”, dio Iraia Oguiza odontologia orokorra, birgaitze eta estetikako espezialistak.

Larrabetzuko hortz klinikak tratamenduak finantzatzeko aukera ematen die bezeroei, eta horrezaz gainera, akordioak sinatu dituzte hainbat osasun-asegururakin. Pentsiodunei deskontu bereziak egiten dizkiete.

Baina Oguiza Doktorea hortz klinika bereizten duen ezaugarriarik badago, esperimentzia, seriotasuna eta profesionaltasuna dira. Eta horien lekukoa Bergaran duten beste hortz klinika da.

Irribarre perfektua


Abuztuko oporraldiaren ostean, Larrabetzuko Oguiza Doktorea hortz klinika berriro zabaldu dute, odontologia bateratuko zerbitzua eskaintzen jarraitzeko. Horrek espezialitate guztiak hartzen ditu bere baitan.

Oguiza Doktorea hortz klinikak teknologia aurreratuena du, eta horri esker, burezurreko erradiografiak eta aho osoko panoramikak egin ditzakete, bezeroak erradiologia-zentroetara joan behar izatea saihestuz. Laborategi propioa ere badute.

Era berean, Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) eskaintzen diete 7tik 15 urte arteko gaztetxoei. PADI Osakidetzaren zerbitzua da, eta programa

horren barruan sartzen direnei doan egingo zaie edozein hortz-konponketa.

Hortz klinikak bezeroentzako odontologia-espezialitate guztiak eta erosotasuna batzen ditu zentro bakar batean. Gainera, lagunarteko trataera ematen die bezeroei. Hiru odontologok eta kabinete laguntzaile batek osatzen dute hortz klinikako lanbide taldea. Garbiñe Torres ortodontziako espezialista da, eta bere esanetan, seme-alaben





Oguiza

Hartz klinika

ERRAZTASUNAK TRATAMENDUAK FINANTZATZEKO

KIRURGIA I TA INFANTIAK
ORTODONTZIA: HAURRAK ETA HELDUAK
ESTETIKA ETA ZURIKETAK
PROTESI FINKOA ETA ERAGINA
ENTZIETAKO TRATAMENDUA
ODONTOLOGIA KONTSERBATZAILEA
HIGIENEA ETA PREBENTZIOA
HAIHUMINTZAKO TRATAMENDUAK

Plaza Anguleri, 1 - behea
48195 Larrabetzu
T: 94 455 88 90



OSAKIDETZAREN (PADI) UMEENTZAKO
HORTZ ATENTZIO PLANA

“Odolean daroagu dantza”

Sondikako Gorantzaileak dantza taldeak 40 urte bete ditu aurten. Bidean, hainbat ekitaldi eta gogorapen. Ospakizunak amaitu ondoren, Izaskun Llona taldearen arduradunak ibilbide horren barri emon deusku.



Testua: Gaizka Eguskiza
Argazkiak: Gaizka Eguskiza,
Izaskun Llona eta Sondikako
Argazki Taldea

Izaskun Llonak 40 urte daroaz dantza taldean

Hasiera-hasieratik daroazu taldean. Zenbait gogorapen izango dira 40 urtean, ezta? Zein da politena? Eta txarrena?

Lau urtegaz hasi nintzan eta berrogei urte daroadaz dantza taldean. Urte honeetan gauza asko gertatu dira, baina gehien nabaritzen dodana mutil falta da. Orain be, neska gehiago daukoguz. Gogorapen asko eta asko dagoz: 25. urteurrenaren ekimena, 1999ko Dantzari Eguna Sondikan... Ganera, nire aita Emeteriori egin eutsien omenaldia egun horretan, eta oso polita izan zan.


Gogorapen txarrak badagoz, horreek hainbeste lan egin eta gero, zeozer txarto ateraten danean izaten dira, batez be.

Zelan sortu zan taldea?

Gurea sortu aurretik, Zortzi Lagunak eta Garbinai taldeak egozan herrian. Garbinai urte bian ibili zan, eta 1966an Gorantzaileak hartu eben izen.

Francoren garaian bazinien euskal dantza taldean. Hasiera gogorra izan zan, ezta?

Txikia nintzan, eta, egia esan, ez dot oso ondo gogoratuten. Aitak dino arazoak egozala garai hartan: ikurriñagaz, karnetakaz, kontrolak... Danok ezagutzen doguzan arazoak, azken batean. Liburuan aitatuten dogun lez, dantzariak arlopea eta txintxarriak ezkutuan erosi behar ebezan,



Txikiñenen
taldea (2005)

Nagusien taldea (2005)

*“Lehen amorratuagoak
ginan dantzakaz, egiten
itxiten ez euskuen eta;
orain, oster, ez
da holan gertaten”*

koloreen konbinazioa (berdea, gorria eta zuria) debekatuta egoalako. Hasieran, nire aita taldearen arduraduna zan, baina ez ekian dantzatzeko eta neu hasi nintzan irakasten. Danetarik izan naz: dantzaria, eta, geroago, monitorea. Irakasle lanetan hasi nintzanean, Bilbora joan eta Bizkaiko Dantzari Biltzarrean dantzak ikasten nebazan. Bertan be, dantzak elkarri irakatsi geuntsazan.

Milaka anekdota be egongo dira...

Bai. 1980ko Dantzari Eguna Baionan egin zan, eta bertara lau autobusez abiatu ginan Sondikatik. Baina gutako batek ezin izan eban muga gurutzatu, bere karnetagaz arazoak egozalako. Beraz, egun osoa emon behar izan eban beste batek lagunduta, gu gauez itzuli arte.

Beste behin, taldeak ekitaldia eskaini eban Bilbon eta dantzariak ez eben dirurik etxe-

ra bueltatzeko. Beraz, Are-nalera joan eta bertan dantzatzeko hasi ziran. Amaitu ondoren, txapela pasatu eta diru nahikoa lortu eben autobusa hartzeko.

Zer aldatu da taldean hasi zinienetik?

Lehen amorratuagoak ginan dantzakaz, hau da, buru-maitasunarengaitik egiten genduan dantza; orain, oster, ez da holan gertatzen edo ez da hain nabarmena, behintzat. Lehen ez euskuen dantza egiten uzten eta horrek amorrua sortzen eban.

Beste alde batetik, gauza asko dago egiteko: aerobik, igeriketa... eta jente askok nahiago ditu horreek dantza egin baino.

Armarria be aldatu da: lehengoa Jose Angel Landak egin eban eta Txema Moralesek barria sortu eban, 25. urteurrena zala-eta.

68 kide zagoze. Zelakoak dira? Zure ustez, zergatik etorten dira taldera?

Gaur egun, lau urte gaz hasten dira eta helduenak 22 urte ditu. Jatorriari jagokonez, Laukiz edo Derioko jentea egon arren, gehienok Sondikakoak gara. Nik uste dot txikitatik etorten dirala gurasoek nahi dabelako. Gero apurka-apurka animatuz doaz arropa ezberdina janzten dabelako, jente barria ezagututen dabelako...

Zein da joera kide kopuruari jagokonez, gorantz ala beherantz?



Goian, 1991ean 25. urteurrena dala-eta Txema Moralesek egindako armarri barria. Behean, irudi zaharra dago, 80. hamarkadan Jose Angel Landak asmatutakoa, alegia.

Garai goxoenetan 90 lagun egon gara taldean; 25 urte bete genduan, hain zuzen be. Orain gitxiago gagoz, baina normala da: gazteak hazten diranean, lagun barriak egiten dabez eta askotan dantza itxi edo nahiago dabe beste gauzaren batean ibili. Baina ume txikerrak etorten dira eta badi-rudi taldeak etorkizuna bermatuta dauala. Ba al dago mugarik dantza egiteko?

Hästens

deriska

deriska seminaria

deriska

deriska

ARTEAGA koltxel-denda

Deriska Seminaris • 94 454 51 47 • DERIO



Erakustaldia Erandio
Goikoan 2005ean

Fisikoki, ez. Nik ez dot dantza egiten, baina nire adineko bikoterik ez dodalako, ez pentsa! 40. urteurren honetan dantza egin dot eta ederto pasatu dot. Hemen gagozenok odolean daroagu dantza. Beti itxi beharko dozula pentsatzen dozu, baina ez dozu inoiz ixten.

Zein da zuen errepertorioa?

Bizkaiko ohiko dantzak: Sagar Dantza, Zinta dantza, Kontrapasa edo Dantzari Dantza; Gipuzkoa aldetik, Agurra, Erreberentzia, Uztai Txiki Dantza, Uztai Handi Dantza...; Arabatik, Laguardia eta Oioneko jotak eta Elziegoko dantzak; Nafarroatik, Aratustea... Danetarik dantzatzen dogu. Bizkaiko Dantzari Biltzarrak lagunduten deusku dantzak ikasten, baita Txema Moralesek be. Ekitaldiz ekitaldi aldatzen da errepertorioa: Sondikan bertan egiten badogu geuk aukeratuten dogu;

1966an ateratako argazkia. Lehenengo Gorantzaileak
Dantza Taldea dogu ikusgai

beste herri batean bada, esaten deuskuena egiten dogu.

Eta egutegia?

Normalean ekitaldi garrantzitsuenak honeexek izaten dira: Dantzari Eguna maiatzean, Sondikako jaiak ekainean,




*“Inoiz mutil gitxi
dagoenez, dantza
batzuetan neskek
mutilarena egin
behar dabe”*


Erandiokoak abuztuan eta Txorierriko herrietako jaiak udan. Deitzen badeuskue, edonora joaten gara. Udan gehiago jarduten dogu jaiak dirala-eta. Urtean zehar elizan batzen gara eguaztenetan (txikiakaz) zein barikuetan (gainontzeko taldekideakaz) entseguak egiteko.

Zeintzuk dira gabeziarik nabarmenenak?

Mutil falta, duda barik. Horrek baldintzatuten gaitu ekitaldiak egiteko orduan. Ikuskizun politak ateraten jakuz, baina aukera gitxiago daukaguz. Dantza batzuetan neskak zein mutilak behar dira, eta neskek mutilarena egin behar dabe, mutil nahikorik ez dagozalako. Halanda be, horrelakorik herrian baino ez dogu egiten; ekitaldi garrantzitsuetan ez gara ausartu-



Hotel Tryp Sondika



LAZKAROTIEN DANTZARI TALDEA, 40. URTEBETEAREN EGUNA
Terni (Txorierri) 48040 eta Terni (Txorierri) 48040
E-mail: erandio@erandio.com

TRYP

HOTEL

ten.

Beste alde batetik, ez dogu musikaririk, baina Elaiak txistulari taldeak lagunduten deusku, eragozpen hori konponduten.

Eta zergaitik ez gara animatzen mutilok dantza egitera, ba?

Lehen soldadutzara joaten ziranean, itxi egiten eben. Orain ez dago soldadutzarik, baina bai beste aukera asko: futbola, saskibaloia... Garai ezberdin bi dagoz: haurtzarora eta gaztarora. Umeak diranean makilak eta ezpatak gustatzen jakez, eta dantza horreek besterik ez dabez egin gura. Baina oso garrantzitsua da haurtzarotik dantza egitea, nagusiak diranean trebakuntza hori oinetan igertzen dalako. Era berean, txikerrak direnean ez dabe neskakaz dantzatu gura eta askok taldea itxiten dabe. Nagusiak diranean, barriz, guztiz kontra-koa gertatuten da: neskakaz egon nahi dabe... Zer egingo deusagu! (kar, kar).



Taldea Algortan dantzan (2001)

"Lehen bai, baina gaur egun umeez ez dabe ordaintzen gugaz dantza egiteagaitik"

Dana dala, denboraren poderioz batzuk itzuli egiten dira, izan be, oso giro ona dago eta lagunak egiten dira. Lagun taldeari eusten bajako, jenteak etorten jarraituten dau.

Txorierriko beste taldeakaz harremanetan zagoze, ezta?

Bai, oso harreman ona dogu. Alkartuten gara, herri batera joaten gara, bestera... Ganera, Sondikan eta Leioan patroï bera dogunez (San Juan) eurakaz be harreman ona dogu. Beste alde batetik, Bizkaiko Dantzari Biltzarrean gagoz sartuta.

Zeintzuk dira taldearen diru-iturriak?

Umeek ez dabe ordainduten gugaz dantza egiteagaitik. Garai batean ordainduten zan, baina orain ez. Egiten doguzan ekitaldiakaitik kobratzen dogu eta horrezaz aparte, Udalak dirulaguntza emoten deusku. Egiten doguzan arropen arabera, aurrekontua aldatu egiten da. Baina urtero-urtero ezin dozu arropa barria egin... Arlo horretan be aldaketa haundia egon da, izan be, antxina amamek egiten euskuen arropoa, baina gaur egun jostun profesionalek egiten dabe.

Zelan animatuko zeunke jentea taldean parte hartzera?

Ez dakit, hainbeste aldiz esan dodanez... Ez, alderantziz, mutilei esan beharrean, neskei esango deutset: mutilakaz ibili eta taldera ekarri! (Kar, kar). Beti esaten deutset berbenetara joatea ondo dagoela, baina bertatik lagunak ekarteko! (kar, kar).

Nire garaia iritsi da

Lehen jentia animatuko zeunke jentea taldean parte hartzera. Baina orain ez. Egiten doguzan ekitaldiakaitik kobratzen dogu eta horrezaz aparte, Udalak dirulaguntza emoten deusku. Egiten doguzan arropen arabera, aurrekontua aldatu egiten da. Baina urtero-urtero ezin dozu arropa barria egin... Arlo horretan be aldaketa haundia egon da, izan be, antxina amamek egiten euskuen arropoa, baina gaur egun jostun profesionalek egiten dabe.



Lehen jentia animatuko zeunke jentea taldean parte hartzera. Baina orain ez. Egiten doguzan ekitaldiakaitik kobratzen dogu eta horrezaz aparte, Udalak dirulaguntza emoten deusku.

HEGOKIA ERANTZUN

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO
LEHEN, M. ALONSO
LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO

LEHEN, M. ALONSO



Ospakizunak

Gorantzaileak Dantza Taldeak era bitan ospatu dau 40. urteurrena: alde batetik, kide eta laguntzaile guztiak gogoan izan ditu liburu batean, eta beste alde batetik, kalera irten eta sondikar guztiakaz dantzatu da, ohiko euskal ezkontza bat antzetzuz. **Zein esangura dauka zuretzat taldeak 40 urte betetzeak?**

Poza handia da niretzat. Lagun asko pasatu dira bertotik, herriko neska-mutil guztiakaz dantza egin dodala uste dot. Eta benetan pozgarria dana hurrengo hau da: nik egin neban moduan, neska asko txikitant taldean hasi eta 20 urte pasatu ostean, oraindik bertan jarraitzea.

Zer kontatzen dozue liburuan?

Nire aitak taldearen historia kontatzen dau: anekdotak, garai onak zein txarrak... Alkarrizketak be badagoz, bai antxinako dantzariakaz, bai gaur egunekoakaz, monitorea kaz... Horrezaz ganera, argazki pilo bat dago.

Nori zuzenduta dago?

Taldetik pasatu diran datzari guztiei omenaldia egin gura izan deutsegu, baita hildakoei be. Gatza da guztiak argazkietan agertzea. Beraz, jendeak ez kexatzearren, nik etxean daukodazenen artean baino ez doguz aukeratu... Horrelako gauzak herri txikerretan gertatzen dira. Irakurri dabe-

Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak

Garapen Berria II
Eredu berria
1998 eta 2000 urteak
11. eta 12. urteak
Eredu berria II
Eredu berria II

1998 eta 2000 urteak
11. eta 12. urteak
Eredu berria II
Eredu berria II



Zure sukaldeari %10ko **DESKONTUA**

1. 1998 eta 2000 urteak
2. 1998 eta 2000 urteak
3. 1998 eta 2000 urteak
4. 1998 eta 2000 urteak

1998 eta 2000 urteak
1998 eta 2000 urteak
1998 eta 2000 urteak
1998 eta 2000 urteak

*“Urte bi emon doguz,
euskal ezkontza
prestatuteko. Hemendik
aurrera, urte birik
behin egin dogu”*

nak pozik dagoz eta oroigarri gisa oso polita dala esan deuste. Bihotz onegaz egin dot.

Horrezaz aparte euskal ezkontza antolatu eta antzeztu dozue...

Bai, egin dogun lehenengo aldia izan da eta polito urten deusku. Lan pilo bat egin behar izan dogu, izan be, 72 pertsonaia egon dira, bakotxaren arropoa egin behar izan dogu... Aspaldidanik neban euskal ezkontza egiteko gogoa eta 40. urteurrena aprobetxatu dot. Dantzariakaz eta senideakaz ibili gara batzarretan, eta talde bat osatu dogu euskal ezkontzaz arduratuteko. Urte bi daroatez lan egiten, dirua batzeko, trajeak egiteko... Ekitaldian parte hartu daben gehienak dantzariak eta senideak dira, baina jubilatatu batzuk be ibili dira gugaz batera. Euskal ezkontza urte birik behin egiteko asmoa dogu, ea jentea animatzen dan eta posiblea dan.

Eta, argi dagoenez, ez da benetako ezkontza bat izan, baina guk antzeztutakoa benetan gertatu zan Sondikan 1880an. Baina, egia esan, ez da ezkontza egin, izan be, antxina goizean ezkontzen ziran familiaren aurrean, eta beste egun batean etxera sartzea egiten zan, hau da, kalejira egiten eben herri osoaren aurrean, ezkontza-kontratuaren barri emon eta dotea zein arreoak erakusteko.



“Inoiz ez dakizu zenbat ordu emango dituzun pieza bat egiten”

Asuako Idoia Aurrekoetxea zura tailatze mundura Arte Ederretako ikasketak egin ondoren ailegatu zen, hori bere ogibide bihurtuko zela ez zekiela. Ikastaro pare bat egin, eta tailer txiki bat jarri zuen ikaskide batzuekin. Gaur egun Arinka tailerra du, eta zura lantzeko ikastaroak ematen ditu Sondikan, Etxebarri eta Lezaman.



Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Zurea zura tailatze tradizionalen espezializatuta dagoen tailerra da. Zein mota-tako lanak egiten dituzu?

Altzariak, kutxatzarrak, arasak... Egia esan, gauza txikiak lantzen ditugu gaur egun: kutxak, erlojuak, argizaiolak... Izan ere, azokak albo batera utzi ditugu eta lanak enkarguz hartzen ditugu. Egur trinkoa erabiltzen dut: harizkia... eta lanen arabera, beste egur mota batzuk: gaztainondoa, gereziondoa, lizarkia... Kalitatezko egurra da beti, lan mota honek horrela exijitzen duelako. Halaber, egur berria erabiltzen dut, lan egiteko orduan zaharra errazagoa bada ere, zaila delako azken hori

topatzea. Eta lan egiteko era? Betikoa. Makinan egurra prestatzen dugu, ainguraketak egiten ditugu... Makina izateak independentzia ematen digu, ogibide honetan gabiltzanok muga bat dugulako: nola prestatu egurra, tailatzeari ekin baino lehen. Makinerian inbertitzea ezinbestekoa da.

Artisaua ala artista? Kontzeptu bi horien gainean luze eztabaida daiteke...

Nik artisautzat dut neure burua, hala ere, azkenean artisauak artista-puntu bat ere baduela pentsatzen dut. Berak ere ekarpena egiten du, baina beste era batean, ez du oso esperimentazio-lan handiak egiten...

Dena dela, ogibidea sakon ezagutzea ezinbestekotzat jotzen dut, eta hortik abiatuta, esperimentazioa egin... Artisau ona artisaua eta artista da: ogibidea du, sormena... **Guk azken produktua baino ez dugu ikusten, baina horren atzean lan itzela dago...**

Tailatzea gehiago balioetsi du jendeak, eta egia da ordu asko eman behar direla horretan, baina tailatzea ez da produktua gehien garestitzen duena. Ordu asko beharrezkoak dira altzari bat egiteko: egurra prestatu behar da, taulak banan-banan landu, horiek kolatu, panelak prestatu, horiek lixatu, ainguraketak prestatu, muntatu, tailatu, berriro lixatu, tindatu... Inoiz ez dakizu zenbat ordu emango dituzun pieza bat egiten. Ordu asko uzten dituzu zenbatu barik.

Eta publikoak badakigu lan hori guztia balioesten?

Nik uste dut baietz. Gurenera hurbiltzen den jendeak lana balioesten du orokorrean, baina, noski, hauek kapritxoak dira eta garestiak, gainera. Piezarik txikienak, esate baterako, 30 euro balio du. Era askotako bezeroak daude, baina gehienek gure tradizio eta sinboloekiko atxikimendu handia izaten dute orokorrean.

Zein da zuen egoera?

Instituzioen aldetik badaude laguntzak eta subentzioak, baina, nire ustez, gabeziarik handienak hurrengo hauek dira: alde batetik, autonomoek duten egoera bera eta beste alde batetik, artisautzako sektoreraren egokitutako langile autonomoen erregimenik ez izatea. Izan ere, gure lan egiteko era eta produkzio-maila ez dira beste profesio-

HOTUNTUEK
ERABILTZEKO, BILATZEKO, KUPATZEKO, ERABILTZEKO
BOZKATZE
INFORMETZE
HEGOKITASUNKO PROIEKTU

Elkartasunak eta informazioa
ELKAR
Nik nire informazioa eta laguntza ematen diut

Elkartasunak eta informazioa
Elkartasunak eta informazioa
Elkartasunak eta informazioa

LEKES
Taberna Jantokoa

Taberna Jantokoa
Taberna Jantokoa
Taberna Jantokoa

Taberna Jantokoa
Taberna Jantokoa
Taberna Jantokoa

Zamudion hasiko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa



Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Niko Moreno
Iturria: XDZ

Urriaren 8tik abenduaren 16ra bitartean Bizkaiko Bertsolari Txapelketa izango da eta bertan 36 bertsolarik parte hartuko dabe. Aurtengo txapelketak *Bapatean Bizkaia* dau lelotzat eta barrikuntzez zein gaztetasunez jantzita dator. Lehenengo kanporaketea Zamudion izango da eta finala Bilboko Euskalduna Jauregian egingo dabe.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketak hiru helburu nagusi ditu: bertsolaritza Bizkaian sustatzea, bertsoazaletasuna zabaltzea eta bertsolarien promozinoa bideratzea. Bizkaiko Bertsozale Elkartea txapelketearen antolatzailea da eta Bapatean Bizkaia lelopean kontzeptu bi batu gura dabez: bertsolaritza eta Bizkaia. "Leloak Bizkaiko bertsolaritza loraldian dagoala adierazten dau. Halaber, txapelketaren irudia dan bonbilla piztuak bertsolarien sormena islatzen dau".

Aurtengo txapelketak barritasunak dakar, izan be, Igor Elortza eta Unai Iturriaga ez dira aurkeztu eta, ondorioz, final ezbardina izango da: ezinbestean, txapeldun barria izendatuko da. Horrezaz ganera, jente barria dabil gai-jartzaile eta epaile taldeetan eta bertsolari barriak be agertu dira. "Txapelketa Bizkaian erreferentia dala argi ikusten dogu. Txapelketaren ibilbidea Bilbon amaituko bada be, eskualdeetako saioak hasi zan eta kanporaketa eta finalaurrekoak be Bizkaia osoan zehar egingo dira". Bizkaiko Bertsozale Elkartek Bizkaiko Foru Aldundiaren, BBK-

ren eta Bizkaiko Txakolinaren laguntza izan dau txapelketa antolatzeko orduan.

Beste alde batetik, aurtun be ahalegin berezia egingo dau elkarteak, www.bertsozale.com web gunean ahalik eta informazio osatuen eta eguneratuen sartzeko. Bertan txapelketari buruzko informazio hau izango da: Bertsolari Txapelketaren historia, saioen egitaraua eta bertsolarien argazki eta biografia, besteak beste. Eta astelehenero sailkapena eguneratua zein bezperako saioko audio eta argazkiak jarriko dabez".

Saioetan promozinoak egingo dira. Xabier Amurizaren *Bizkaiko Bertsozaintza III* eta *IV* liburuak eta Txapelketa Nagusiko liburua 20 eurotan egongo dira salgai. Era berean, Bertsozale Elkarteko bazkide egiteko kanpaina egingo dabe eta bazkide barriak ez dabe 2006ko kuota ordainduko. Ganera, Bizkaiko Txakolin botila bat emongo jake opari.

Bizkaiko Foru Aldundiaren, BBKren eta Bilboko Udalararen laguntzagaz saio osagarriak antolatuko dira: bertso saioak uniber-

Txapelketa, zenbakitan

-5 kanporaketa, 3 finalaurreko, finala
-36 bertsolari, 10 epaile, 9 gai-jartzaile eta 10 lagunentzako antolatzaile taldea
-3 babesle eta 9 udal
-5.000 entzuletik gora

Hitzorduk

• Kanporaketak

-**Zamudio:** urriaren 8an, 17:30etan, kiroldegian. Bertsolariak: Beñat Ugartetxea, Eneko Abasolo, Gorka Ostolaza, Amaia Uribe, Miren Ibarluzea eta Mikel Galarza.

-**Sestao:** urriaren 15ean, 17:30etan, Musika Etxean.

-**Arrigorriaga:** urriaren 22an, 17:30etan, Lonbo aretoan.

-**Igorre:** urriaren 29an, 17:30etan, Kultur Etxean.

-**Aulesti:** azaroaren 5ean, 17:30etan, pilotalekuan.

• Finalaurrekoak

-**Gernika:** azaroaren 19an, 17:30etan, Jai-Alai kiroldegian.

-**Getxo:** azaroaren 26an, 17:30etan, Getxo Antzokian.

-**Durango:** abenduaren 3an, 17:30etan, Ezkurdi pilotalekuan.

• Finala

-**Bilbo:** abenduaren 16an, 17:30etan, Euskalduna Jauregian.

Informazioa:

94 681 27 11 / 943 21 77 98

www.bertsozale.com

tsitateetan eta ikastaroak euskaltegietan. Bertsolarientzat be ikastaro bi antolatu dira: bata bizkaierari buruzkoa eta bestea kantaerari buruzkoa.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala abenduaren 16an izango da Euskalduna Jauregian. Sarrerak hurrengo leku honeetan eskura daitezke: Txapelketako Kanporaketa eta Finalaurrekoetako leihatiletan, www.bertsozale.com web gunean, 94 681 27 11 edo 943 21 77 98 telefono zenbakietan eta BBKren orotariko kutxazainetan.

AUSARTU

ZORROK IRATSIKIN ETEN UTZARRIARIK ELLABITZA

Izena
eman
orain eta
matxista
ekin
hau jaso



goza ezazu gurekin
BODY CENTER
fitness eta
wellness zentroan

39 €tik aurrera

center **body**

Izena
eman
orain eta
matrikularen
%50
gurreztu

BODY CENTER BILBAO Larrauri kalea, 1 - A Erakinean
Seminarioan 48160 DFRIO (Bizkaia)

Tel.: 94 454 15 82

www.bodycenterbilbao.com

Zamudio Saski Baloi Taldea

Duela 13 urte Zamudioko 9 lagun eskolako kantxan saskibaloian aritzen zebiltzan. Taldea osatzea erabaki eta Zamudio Kirol-Elkartearen atera jo zuten. Bertan lekua eskaini zieten eta, horrela, Zamudio Saski Baloi taldea sortu zen. Edorta Ramos taldearen kapitainarekin eta Raul Perez jokalaria eta delegatuarekin izan gara solasean.



Testua eta argazkia: Itxaso Marina

“Aurtengoa trantsiziozko urtea da”



Denboraldi-aurreak gogorrak izaten dira; zuena ere bai?

Entrenamenduak ezberdinak dira: ez dago baloirik, korrika egin behar da... Ariketa fisikoa egin behar dugu eta horrexegatik da gogorragoa. Baina gu ez gara eliteko kirolariak. Gustatzen zaigulako egiten dugu.

Eta nola ikusten duzue denboraldia?

Aurtengoa trantsiziozko urtea da, izan ere ez dugu entrenatzailerik eta hiru jokalaria berri sartu dira. Ea zer gertatzen den... Bigarren Senior Goren mailan gaude eta, egia esan, zozketan tokatu zaigun talde-multzoa nahiko konplikatua da. Maila haundia dago. Denboraldiaren lehenengo partida urriaren leian dugu.

Hitz egin apur bat jokalariei buruz...

Guztiok ginen zamudiotarrak hasieran, baina urteak pasa ahala Sondika eta Mungiako jokalariren bat sartu zen taldean. Gaur egun, berriz, 5 lagun baino ez gara Zamudiokoak; gainontzekoak Bilbo-koak dira. Internazionalak ere baditugu, ez pentsa! (Kar, kar). Zamudion bizi diren kataluniar bat eta frantses bat daude taldean eta aspaldian amerikar bat aritu zen gurekin. Guztiok gara langileak: entrenatzera etorri ahal dena etortzen da eta ez dugu dirurik irabazten taldean jokatzeagatik. Musu truk egiten dugu, baina gorenera

13. EDIZIOA
"Antonio Apeztegui" 13. edizioa
Lau oraindik ez da hasieratu!
Jarduerak 17-18 urte

13. EDIZIOA
"Antonio Apeztegui" 13. edizioa
Lau oraindik ez da hasieratu!
Jarduerak 17-18 urte

13. EDIZIOA
"Antonio Apeztegui" 13. edizioa
Lau oraindik ez da hasieratu!
Jarduerak 17-18 urte

IKA GELA ASOCIADA

Ikasle guztiak
Talde guztiak
Elkarrekin
Ikasle guztiak
Talde guztiak
Elkarrekin
Ikasle guztiak
Talde guztiak
Elkarrekin

IKASLE GUZTIAK
TALDE GUZTIAK
ELKARREKIN

ailegatzeko asmoarekin. Irabazteko jokatzeko dugu.

Zaila izan duzue aurtengo taldea osatzea? Ez, gehienez jota 12 fitxa bete ahal ditugu eta horiek dira, hain zuzen ere, bete ditugunak. Ez dugu arazorik izan 12 jokalaria horiek topatzeko.

Zeintzuk dira zuen baliabideak?

Beste saskibaloit talde batzuen aldean pribilegiatuak garela esan dezakegu, izan ere klubak dena ordaintzen digu: fitxak, arbitroak, ekipajea, baloiak, zigorrak... Entrenamenduak Zamudioko kiroldegian egiten ditugu. Lehenengo 4 urteetan futbol zelaian egiten genituen entrenamenduak eta aldagelak ere futbol taldekoekin konpartitzen genituen. Barruko kantxa egin zutenean hori erabiltzen hasi ginen eta aldagela propioak ere eman dizkigute.

Futbola gehiago mimatzen dute orokorrean...

Bai, beste kirol batzuei baino lehentasun handiagoa ematen zaio futbolari. Gehien mimatzen den bigarren kirola saskibaloia da, beharbada... Baina oraindik oso urrun gaude futboletik. Zamudion, adibidez, futbolak zale gehiago ditu eta gaztetxoek bertan aritzea nahiago dute. Ah, nahi duenak gurera etor daiteke eta nahiz eta taldean kanpokoak egon, zamudiotarrek eta txorierritarrek lehentasuna dute.

Badirudi booma dagoela orain: Euskal

“Zamudion saskibaloit taldea dagoela jendeak ez dakiela esango genuke”

Herriko hiru talde ACBn daude eta Espainiako Selekzioak mundiala irabazi du...

Baina boon hori ez da berria, jendea horrezaz ohar dadin mundial bat irabazi behar dela ematen badu ere. Kantxak zalez beteta daude beti: Bilbao Basket taldeak, adibidez, 4500 bazkide ditu eta La Casilla pabilioiak 5000 lagunentzako tokia du...

Dena den, zera bi horiek eraginik izan dezakete zaleengan, zuen ustez?

Ez, futbola gustatzen zaionari futbola gustatzen zaio... Beno, Athletic bigarren mailara jaitsiz gero, La Casilla handitu beharko dute, beharbada (kar, kar). Ez, bromaz aparte, ez dugu ezer futbolaren kontra.

Zein da saskibaloiairene egoera Txorierrin?

Gurea ekipo bakarra da. Duela urte batzuk beste talde bat zegoen Derion eta oso onak ziren, zale asko eta asko erakartzen zuten kiroldegira.

Txorierriko saskibaloit talde bakarra zarete. Erresposabilitate handia, ezta?

Ez, hiru lagun baino ez direlako gure partidetara etortzen... eta lagunak edo senideak

dira, gainera. Are gehiago, Zamudion saskibaloit taldea dagoela jendeak ez dakiela esango genuke. Animatu eta etorri! Jokatzera ez bada, partidak ikustera, behintzat!

ACBn sartu diren euskal taldeek euskal jokalaria gutxi dute; ez da hemengo harrobia bultzatzen, ala?

Egia esan, ez dakigu. Bilbao Basket taldeak harrobia omen du Santurtzin-eta, baina kategorien arteko distantzia oso handia da... Halaber, nahi beste atzerriarrekinek jokatu ahal denez... Eta gero, selekzioak partidak irabazten ditu... munduko txapel-duna da... Nesken egoera ezberdina da. Gehiago dira eta maila hobea dute. Goi mailako ligetan nesken taldeak gizonetakoak baino gehiago dira.

Zeintzuk dira zuen planak etorkizunari begira?

Etorri behar dena etorriko da. Duela pare bat urte Lehenengo Senior mailara igotzeko zorian izan ginen, baina ezin izan zen... Lehen esan dugun moduan, aurtengoa transiziozko urtea da eta ikusiko dugu... Dena dela, guk ahaleginak egingo ditugu eta gure esku dagoena irabazten saiatuko gara... Eta dagoeneko zaharrak garela! Hogeita hiru urte dituzten bik izan ezik, beste guztiok 30 urte inguru ditugu eta gaztetxoak gogor datoz. Eta horrela izan behar du, gainera. Zaharrok ezin gara betiko hemen gelditu.

cianoplan sa
global printers

1. BILKATZE TEKNOLOGIAK 185.000
481.000 / 7.000.000
Teléfono: 94 491 71 77
bil@cyanoplan.com

- Inprimatze eta planatze logikak.
- Barnekoak koloretan eta zifre.
- Digitalizazio eta barnekoak, automatizazio eta logikak.
- Fotokopiatze koloretan eta zifre.
- Barnekoak koloretan eta zifre.
- Plakak, barnekoak, barnekoak.
- Plakak, barnekoak.
- Barnekoak.

ETORRI
Montoliu eta Montoliu, 4. bulego
Tel: 94 491 71 77
Móvil: 607 52 15 55

MAPFRE
GRUPO
Montoliu eta Montoliu, 4. bulego
Tel: 94 491 71 77
Móvil: 607 52 15 55



DERIO FRUTADENDA
Solube, 8
Teléfono: 94 491 71 77
DERIO

TABERNA MENDIA
ENTRADA EN SITIO
Teléfono: 94 491 71 77

ANKAPALI
LAMPARILLAS
Teléfono: 94 491 71 77
LAMPARILLAS

Pribatutasuna babesten duen doako nabigatzailea

Nabigatzaile gehienek erabiltzaileek egin-dako bilaketak automatikoki gordetzen dituzte historialean eta cache memorian. Erabiltzaileok historial-karpeta ezabatu eta Interneteko cachea husteko aukera dugu, baina gehienok ez dakigu nola egin edota ez dugu horrela egiteko ohiturarik. Beraz, gure onlineko saioren aztarnak uzten ditugu ordenadorean.



Arazo hori ekiditeko asmoz, nabigatzaile berri bat atera dute merkatura: Browzar. Nabigatzaile horrek erabiltzaileen pribatutasuna babesten omen du, izan ere ez du erabiltzaileen gaineko daturik biltzen, ezta bisitatutako web orrialdeen gaineko daturik ere.

Browzar doako nabigatzailea da eta erabiltzaileek ez dute izenik eman behar deskargatu ahal izateko (www.browzar.com). Programak 264 KB ditu eta Interneteko cachea, historia, la, cookiak eta formularioak betetzeko datuak ezabatzen ditu automatikoki. Hala-ber, erabiltzaileak formulario batean emandako datuak gordetzen ditu eta, horrela, inoiz beste formulario bat bete behar izanez gero, datu horiek berriro sartu behar izatea ekiditen du.

Nabigatzailea Ajaz Ahmedek egin du. Freeserve

Interneteko sarbide-hornitzaile britainiarren arduraduna da Ahmed. Freeserve Interneterako doako sarbidea eskaini zuen lehena izan zen 1990. urtean.

Browzar Windowsekin erabiltzeko atera dute momentuz (W98 IE 5.5ekin, gutxienez) eta ingelesez dago, hala ere, Mac OSerako eta Linuxerako bertsioak urrian ateratzeko asmoa du sortzaileak. Irailean Browzar nabigatzailearen Beta bertsioa kaleratu da eta produktuaren behin betiko bertsioa datorren hilabetean aterako dute.



Bilerakide, lana erraztu zaie udalei

Goisystem Beasaingo informatika enpresak Bilerakide aplikazio informatiko berria sortu du, Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatuak hala eskatuta. Aplikazioak aktak eta haiekin lotutako gainerako agiriak modu errazean sortzeko aukera ematen die udalei. Lazkaoko Udala Bilerakide erabiltzen hasi den lehena izan da; orain, Euskal Herri osoko udalen esku dago. Aplikazioa euskara hutsean sortu dute.

Picasa Web Albums, argazkiak on-line

Googlek argazkiak sarean jartzeko eta konpartitzeko aplikazio berria aurkeztu du: Picasa Web Albums. Aplikazioa azkarra, arina eta erabilerraza da; hala ere, test bertsioan dago oraindik, eta erregistroa ezin daiteke zuzenean egin: Googleri eskaera egin behar zaio eta haiek bidaliko dizute gonbidapena, aplikazioa erabili ahal izateko.

www.picasa.google.com/web/help.htm



“Amodio kanta bat salaketarik hoberena izan daiteke”

Joseba Gotzonek *Gris* disko berria kaleratu-ko du urriaren 3an. Diskoaren aurkezpen ofiziala urriaren 19an egingo da Bilborock aretoan. Birari hilaren 6an ekingo dio Lleidan. Eta birak hainbat lekutara eramango du aurten: Buenos Airesera, San Paulora, Suitzara... Loiuko kantautoreak azalpenak eman dizkigu.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Iñaki Garcia Uribe

Kolore triste ematen du grisak...

Diskorako argazkiak Bakioko hondartzan egin genituen egun gris batean. Artean ez neukan aukeratuta diskoaren izenburua, eta *Gris* jartzea erabaki nuen. Kanten hitzak mintzatzen dira hausnarketa pertsonaletan murgildutako amodio istorioez, bizi garen gizarte hipokritaz, legezko eta legez kanpoko gerrez... Eta bizitzan dena zuria edo beltza ez denez, grisari kolorerik aproposena iritzi nion diskoari izenburua jartzeko. Joko handia eman dezake kolore horrek.

Euskarazko 9 kantak eta katalanezko abesti batek osatzen dute lana; 1988tik 2006ra bitartean idatzi dituzunak.

Diskoko kanta batzuk 1996an aurkeztu nituen Barakaldo Antzokian, *Fuego y Brasas* ikuskizunean, hain zuzen ere. Baina ez nituen grabatuta. Beraz, kantu guztiak argitaragabeak dira, *Deserria* kanta izan ezik. Hori *Kalapo* LPn grabatu nuen eta bertsio berria egin dut azken lan honetarako. Egia esan, *Gris* diskoa aspaldian hasi nintzen prestatzen; hala ere, hiru lan monografiko egiteko eskatu zidaten (*Noegga, historias y leyendas*; *Nortasuna* eta *Fotopoemak*) eta lantzeari utzi egin nion.

Kanten moldaketak Jose Luis Canal piano-jotzaileak eta Pedro Hoyuelosek egin dituzte; *Gris* abestia, berriz, estudioan bertan bukatu nuen. Daniel Amat Kubako perkusio-jolearen laguntza izan dut abesti horretan.

Deserria kantaren hitzak Mercedes Esti-

“Diskoa mintzatzen da hausnarketa pertsonaletan murgildutako amodio istorioez, bizi garen gizarte hipokritaz, legezko eta legez kanpoko gerretaz...”

balitz eta Iñaki Ojeda olerkariak dira eta beste guztiak nik idatzi ditut. Abesti berean gai desberdinak azaltzea gustatzen zait: maitasuna, gizartea, gerren aurkako salaketak, gosea, giza eskubideak... Izan ere, amodio kanta bat salaketarik hoberena izan daiteke.

Eta *Gris* zuk zeuk produzitutako lana da. Diskoetxe bik interesa erakutsi badute ere, nahiago izan dut neuk egin. Duela 10 edo 15 urtetik hona diskoetxeek koprodukzioak egitea proposatzen digute eta horretarako nahiago dut neure lanak neuk nahi dudan moduan egin. Diskoak Euskal Herritik kanpo ere kaleratuko balituzte... orduan, bai, hori kontuan hartzekoa izango litzateke, kontzertuen %60 atzerrian ematen ditudalako.

Zer nabarmenduko zenuke diskotik?

Grabatzeko era, beharbada. Diskoan parte

hartu dugun musikari guztiok aldi berean grabatu dugu eta horrek izugarritzko freskotasuna ematen dio lanari; ez du ematen “enlatatuta” dagoela edota plastikozkoa dela. Horrezaz gainera, ez dugu tresna digitalik erabili; adibidez, erabili dugun reverra 60ko urteetako da: bitxi bat, gaur egun. Grabatzeko era hori dela eta, zuze-nean gaudela ematen du eta niretzat oso garrantzitsua da hori, kontzertuak ematea grabatzea baino askoz gehiago gustatzen zaidalako. Are gehiago, grabatzea oso aspergarria eta astuna iruditzen zait.

Beste alde batetik, *I t'enyorem molt* katalanezko abestia sartu dut diskoan, Montse Marín i Cuspineraren omenez. Berak katalanera itzuli zuen *Fotopoemak* diskoa.

Zozketa

Joseba Gotzonen *Gris* diskoaren ale bi, kamiseta bi eta Bilboko kontzerturako sarrera bi zozketatzen ditugu. Haie-tako bat eskuratzeko, hurrengo galde-ra hau erantzun behar duzu:


Zenbat disko kaleratu du Joseba Gotzonek? (Azkena bar-ne)

Erantzuna hurrengo helbide honetara bidali behar duzu:
aikortxori@yahoo.es.

Kantoiko edo gerratarren etxea



Testua: Sabin Arana



Larrabetzuko Ikatz jauregiak —batzuek Ikatz markesaren etxea esaten deutes— Kantoiko etxea eban izena aspaldian, eta gerratarrena zan. Historialariek familia horren inguruan zertxobait idatzi arren, datu horreek ez dira batere fidagarriak. Guri jagokunez, gerratarrak duela 500 urte baino gehiago agertu ziran urian. Beste alde batetik, gastelutarrek Kantoiko etxearen jabetza lortu eben gerratarren ondorengoekaz ezkontuta.

Maria Bentura Gasteluk gaur egun ezagutzen dogun etxea berreraikitze (edota berriztatzeko) agindu eban eta bere alabak (Maria Josefa Bizenta Altuna eta Gastelu) kontratua egin eban Martin Goiri eta Atanasio Galartzagaz XIX. mendearen hasieran, eraikitze lanei ekiteko. Maria Josefak 66.000 erreal ordaindu ebazan. Kantoiko etxearen jatorrizko armariak Gastelu eta Gerra ziran.

Maria Josefa Bizenta Altunak ez eban ondorengorik izan, eta bere lehengusina Antonia Hernani eta Gastelu ondorengo izendatu eben 1830ean. Antoniaren alaba (Anakleta Jungitu) Manuel Legorburugaz ezkontu zan, baina horreek be ez eben seme-alabarik euki. Ondorioz, gizonaren arreba Ines Legorburu eta bere senarra (Gimenez Breton) ondorengo izendatu ebazan.

Garai hartan Gangoiti zan herriko medikua eta horrek Kantoiko etxea eban akuran. Bere alaba Mercedesek XX. mendearen erdirantza erosi eutsen etxea gimenez-bretondarrei eta armariak aldatu be bai. Horreen orde bereak jarri ebazan: Agirre eta Olea. Azken hau bere arbaso baten abizena, aita Gangoiti baitzan. Mercedesen senarrak Pedro Ikatz eta Agirre eban izena. Pio XI Aita Santuak markes titulua emon eutsen 1927. urtean.

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa zentroak relax zirkuitu hiru eskaintzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi eta dutxa inguratzailea.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:

Derion
Irabazlea:
Maria Mentxaka



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-buru batean gau bat pasa Laia Hotel Museoa, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne. Hilabete honetako galdera zera da:

Non ireki da aldi baterako egonaldiko egoitza?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-txori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Legatza Susterrak erara



Maite Lekerika

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 8 legatz-xerra (meheak)
- 4 urdaiazpiko-xerra (tamaina berekoak)
- 2 berakatz-ale
- Limoi txiki bat
- Perrexil apur bat
- 2 arrautza
- Irina
- Gatza
- Oliba olioia

Prestatzeko era:

Legatz-xerra baten gainean urdaiazpiko-xerra bat jarriko dugu eta, horren gainean, beste legatz-xerra bat. Gatz apur bat bota eta albardatu egingo dugu. Zartagin batean olio apur bat eta berakatzak jarriko ditugu. Horiek gorritzen direnean, perrexila eta limoi-zukua botako ditugu. Olio erreza legatzaren gainean botako dugu.



Limoizko mousse edo aparra

Osagaiak:

- 5 arrautza-gorringo
- 5 arrautza-zuringo
- 3 limoiren zukua
- 5 koilarakada azukre

Egiteko era:

Arrautza-gorringoak, limoi-zukua eta azukrea nahastu eta mikrouhinean sartuko dugu hiru minutuan. Atera, eragin eta berriro sartuko dugu mikrouhinean hiru minutuan. Atera eta orea hozten denean arrautza-zuringoak harrotuko ditugu. Horiek orearekin nahastuko ditugu eta hozkailuan sartuko dugu, erabat hoztu arte.

www.sukaldeon.org

[illegible]

Kudeaketa- eta Sektoreko
Biziklatazko Zentro Autonomoa

 **SOGECAR**

Tratamendu Ikeriak

- Erabilizko oinak
- Agortutako lasterkinak
- Urtebetezkoak
- Automozio

Bondakman kudeaketa orria

Torrearragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 618

Comunicación
TXORIFERRI

Jose Antonio Soro

TXAPA ETA LAKE PINTRES

Trasladar a la red de la red
Valencia 2. 12. 1991. 1. 1.

TRANSACCIONES DE LA RED DE LA RED

ARTÍCULO 1.º
El presente artículo



THE AMERICAN REVOLUTION AND THE ORIGINS OF THE CONSTITUTION
 by **JAMES MADISON**
 Edited by **ROBERT A. GOLDMAN**
 Oxford University Press

"The American Revolution and the Origins of the Constitution" is a collection of essays by James Madison, one of the Founding Fathers of the United States. The book is a collection of essays that explore the relationship between the American Revolution and the origins of the Constitution. The essays are written by Madison himself, and they provide a unique perspective on the events of the American Revolution and the development of the Constitution. The book is a valuable resource for anyone interested in the history of the United States and the origins of the Constitution.

Oxford University Press
 100 Brook Hill Drive
 West Nyack, New York 10994-2133
 (212) 850-6640
 Fax: (212) 850-6699
 E-mail: orderdept@oxfordup.com



**Carmendia
ardoak**

Tram. pub. 37-48
construïda
Tel./Fax: 94 425 00 40

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Zazpi bider zazpi

Felipe Juaristi

Gazteentzako eleberri klasikoa. Koadrilako liderra izan nahi dauan gazte batek pasatu behar dituan frogak eta lagunen arteko gertaerak azaltzen dira intriga eta abenturaz betetako eleberrri honetan.

ETaren hautsa

Joseba Zulaia

Su-etenaren inguruko hausnarketa: "Gure esku dago guztia. Badugu parlamentua, baditugu alderdi politikoak eta elkarteak, eta badakigu kontatzen esku altxatuak zeren alde dauden. Zein da ba gure arazoa? Besar-kada historikorako ordua da. Galdutakoen memoria erredimitzeko modu bakarra: euskal berpizkunde berri bat".

MUSIKA

Arimaren zubiak pont's de l'anima.

Gorka eta Natxo Knorr

Luz negra. Argi beltz.

Tirri tarra

The last beautiful day

New Buffalo

Le chant des legendes basques.

Egon



DENBORA PASA

LETRAZOPA

Y	U	T	A	B	Ñ	B	F	A	F	J	Z	O
T	E	E	I	R	O	I	L	P	N	E	P	J
J	D	S	D	Y	R	D	O	N	A	S	I	G
N	F	B	K	A	Z	U	R	I	R	J	X	K
I	A	K	L	U	P	R	H	D	R	P	A	F
Ñ	E	S	X	H	D	R	M	E	A	R	E	A
D	N	M	G	G	O	E	B	L	M	K	L	T
H	I	E	P	I	N	Ñ	L	H	L	R	L	K
B	K	R	M	A	S	Z	N	A	H	G	A	L
T	A	Y	O	R	D	N	I	L	I	X	T	U
U	M	S	X	E	K	X	Y	N	Ñ	O	I	Y
Z	U	A	U	D	M	F	B	J	Y	G	Z	S

A	U	K	E	R	A	
E	R	A	T	U		
B	E	R	A	T	U	
M	I	N	B	E	R	A
B	E	R	A			
B	E	R				
B	E	R	O			
E	R	O	T	U		
Z	E	R	O			
Z	E	R				
E	Z	E	R			
Z	E	R	B	A	I	T

1. Egokiera, abagunea
2. Antolatu
3. Bigundu
4. Erraz mintzen duena
5. Huraxe
6. Berririo adierazteko aurizkia
7. Sargori
8. Zoratu
9. Hutsa
10. Gauza batez galdetzeko
11. Deus
12. Gauzaren bat


Aurki itzazu goiko letrazopan **lurra lantzeko erabiltzen ziran 7 tresnen izenak**.*. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.
* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR!
51. zenbakiaren hitz-dorrearen erantzuna.

EUSKAL HERRIKO d-generazioa



SPINZ eta NABES
argazki artistak



Agenda

Antzerki eta filmak

Zamudio

–*La Cebra o ¿Quién es Silvia?* Urriaren 6an, 20:00etan, Arriaga antzokian.

Lezama

–*Show collage*, Rosa M^a Martínez ipuin kontalariaren eskutik. Urriaren 27an, 6:30ean, liburutegian.

Larrabetzu

–Ipuin kontalaria. Urriaren 20an, 17:30ean, Anguleri jauregian.

Azokak

Loiu

–Eskulangintza eta Gastronomiako XIV. Azoka, urriaren 15ean: 32 eskulangintza-postu eta 60 bat gastronomia-postu, txakolin dastatzea...

Erakusketak

Zamudio

–Pablo Picassoren *Gernika* lanaren gaineko artista batzuen ikuspuntua. Urriaren 4tik 20ra, dorrean.

Ikastaroak

Mankomunitatea

–Euskara ikastaroetan matrikulatuak

dauden ikasleentzako dirulaguntzak. Eskabideak egiteko epea: urriaren 1etik 31ra.

Sondika

–Komunikazioa eta autoestimua, azarotik urtarrilera. Izena emateko epea: urriaren 2tik 6ra, liburutegian.

Larrabetzu

–Informatika, urriaren 7tik azaroaren 16ra. Lanean dagoen jendeari zuzenduta. –Patinatzea, urriaren 7an eta 14an.

Irteerak

Sondika

–Nafarroa Oinez, urriaren 15ean. Izena emateko azken eguna: urriaren 1ean, Gaztetxean.

Zamudio

–Nafarroa Oinez, urriaren 15ean, Beran. Izena emateko azken eguna: urriaren 9a. –Granada, Arroeta mendi taldeak antolatua. Urriaren 11tik 15era.

–Balmasedara igoera, Racing elkarteak antolatua. Urriaren 22an.

–Gernika, Adintsuen Elkarteak antolatua. Urriaren 30ean. Txartelak jasotzeko egunak: urriaren 21a eta 22a, 11:30etatik 13:00etara.

Lezama

–Europako Mendiak, Gailur mendi taldeak antolatua. Urriaren 11tik 15era.

Larrabetzu

–Eurodisney, urriaren 12tik 15era. –Nafarroa Oinez, urriaren 15ean.

Jaiak

Lauroeta

–San Migel, irailaren 29tik urriaren 1era.

Derio

–San Migel, irailaren 29tik urriaren 1era.

Txapelketak

Sondika

–Frontenis. Urriaren 21ean hasiko da. Izena emateko epea: urriaren 2tik 11ra, Gorronda Beko kiroldegian.

Zamudio

–2006ko San Martin Jaiei Kartel Lehiaketa. Lanak aurkezteko azken eguna: urriaren 6a, Udaletxean.

Bestelakoak

Zamudio

–Udagoieneko bazkaria, Adintsuen elkarteak antolatua. Urriaren 26an eta 27an. Txartelak jasotzeko egunak: urriaren 14a eta 15a, 11:30etik 13:00etara.

Lezama

–Pilota Astea, urriaren 2tik 7ra, Kultur Aretoan: erakusketa, hitzaldia... –Erreka Eguna, urriaren 22an.



LORE GAROIA

ILKAPARRUGIA

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK
LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK
LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK



LORE GAROIA

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK



LORE GAROIA

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK



LORE GAROIA

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK



LORE GAROIA

GARAIOLTZA, S.A.

PRIMORDIAK ERATUNTZAK

LEZAMA

ETXEREGITZAK, MERKATUNTZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN HAILAKO ERATUNTZAK, LEHEN HAILAKO

ORDAINTZEN DULAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Udakoak, 128 (bidea)

Lezama (Bizkaia)



LORE GAROIA





LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK



LORE GAROIAK ILKAPARRUGIAK

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaltzaireen, gure pertsonen inplikazioaren eta helburuak jantziaren bitartez, berrikuntza eta inbentarioa berritu nahi dugun bitartean, Rikaintzearen eraginez biltzen.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsiones, S.A.





Emetereentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erabatasun

guztiekir eta

galnera...

Bidaia-

asistentziako

doako asgurua

abantailak era

guztietako 2.000

establizimendutan.

Deskontuak

mundu osoan

izateko gitarra.

Kontsultatu

BBK26 gida,

www.bbk.es

orrian